

Etxebizitzen zozketa berria

Promozio pribatuko 127 etxebizitza dira, Goiegi Ibarra eta Zabaleta Berrin



Baietz gurean!
egitasmoa jarri
dute abian
Buruntzaldean

Buruntzaldeko enpresen euskararen erabilera sustatzeko, 'Baietz gurean!' egitasmoa jarri dute abian Buruntzaldea osatzen duten 6 udalderriek. Helburu nagusia da ahalik eta enpresa gehienek jartzea bitartekoak euskararen erabilera normalizatzen.

/4-5 ORRIALDEAK

Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa, berriro ere, babes ofizialeko etxebizitzaren zozketaren lekuko izan zen atzo.

Oraingoan, promozio pribatuko 127 etxebizitza zozkatu ziren, Goiegi Ibarrean 75 etxe eta Zabaleta Berri eremuan 52.

Bi saio desberdinetan, 35 urteko azpiko bakarkako edo bikotekako eskaerak lehenik eta beste kupo guztiak bestean, etxebizitzaren onuradunak derberdinak aukeratu ziren.

Zozketa

Saio bakoitzean, alkateak zozketaren nondik norakoak azaldu zituen eta barkamena eskatu zuen zozketa hainbeste atzeratzeagatik.

Ostean zozketa egin eta kupo bakoitzeko onuradunak ezagutu ahal izan ziren. Lehenengo zozketan, esate

baterako, alkateak izenak irakurtzerakoan ikusleen artean algarra batzuk entzun ziren.

Era berean, zozketa amaitzerakoan, hainbat lagun edo senide zozketara joan ezin izan ziren zortekoei telefonoz deitzen ikusi genituen.

Egokitutako etxebizitza

Gainera, atzoko zozketak berrikuntza bat zekarren, etxebizitzaren onuradunak egokitutako etxebizitzaren berri izan ahal izan zutela.

Kafetegian jarri ziren zozketako zerrenden ondoan, bi eremuetako etxebizitzaren informazioa zegoen, hala nola, zein etxebizitza den edo etxebizitzaren erabilgarri diren metroak.

Gainera, NASIPA eta Zabaleta Berri enpresako kideak atzo kultur etxean egon ziren egun osoz onuradunei etxebizitzaren berri ematen.



Onuradunek haien etxebizitzaren berri izateko aukera izan zuten kafetegian.

Zozketara joan ezin ziren herritarrek onuradunen zerrenda eta dagozkien etxebizitzak ikusteko aukera dute Lasarte-Oriako Udalaren orrialdean, www.lasarte-oria.org.

Jarraibideak

Alkatean azaldu zuenez,

hurrengo egunetan, bi enpresa sustatzaileak harremanetan jarriko dira behin behineko onuradunekin dokumentazioa eskatzeko.

Hauk datuak Etxebidara bidali eta honek behin betiko onuradunak zeintzuk diren jakin araziko die enpresei. •

Ekozinemaldia zor ekologikoa aztertzen

Otsailaren 21 eta 22an, hau da, astelehena eta asteartean Ekozinemaldiaren barruan hainbat labor eta luzemetrai ikusi ahal izan ziren Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Ekologistak martxak antolatutako dokumental saio honetan gai zentrala zor ekologikoa izan genuen. Filme hauek ikusi eta gero hausnarketarako txanda iritsi zen.

Aurten nobedade batekin iritsi da ekozinemaldia, elebitasuna bermatu nahian euskarazko subtituluak ikusi ziren. •



Ekozinemaldian landutako gaiak ez zuen jende gehiegi hurbildu Manuel Lekuona kultur etxera

25. URTEURRENA /3

25. urteurreneko ospakizunen irakurketa positiboa egin du Lasarte-Oriako udalak

KIROLA /3

Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteek domina eta markak lortu zituzten Neguko txapelketan



ANAIAK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN !!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386



Neure kabuz



Kinielak astelehenetan asmatzen ditut nik

Īnaki zutabekideari erantzuteko diot. Tripako harrak janda omen da laguna. Hurrengo alkatea nor izango den galde eta galde ari baitzaigu azken zutabeetan. Apusturen bat luzatzeko asmatan ez ote dabilen pasa zait burutik, atera kontu! Bada, nirekin kale egin duzu, Īnaki. Nik, apustuak, harrijasotzaile lanetarako besterik ez ditut onartzen. Bai, ea nork baino nork gutxiago altxatu. Tamalez, inor ez da nirekin ausartzen. Logikoa ere bada. Inori ez zaio galtzea gustatzen.

Tira, ea serioxeago jarri-ta... Hari asko ditu mataza horrek eta ezin orain guztietatik tira, baina enfin. Aurreko zutabe batean idatzi nuen: printzipio moduan, politikariak baino politikak interesatzen zaizkit; eguneroko kontua da politikariak (alderdiak) aldatzen politika aldatu gabe. Egia esan, gurean, alderdi (eta pertsona) batek izan duen nagusitasunaren ondorioz, eta baita gauzak egiteko moduaren ondorioz ere, politikariren aldatetarik politikaren aldateta bat baino gehiago ekarriko luke, nahitaez ia. Hala sinetsi nahi dut behintzat. Bestela, uff... akabo.

Demokrazia, herritarrek gobernatzeko modua ulertuta, ez da lau urtetan behin botoa eman ahal izatea. Demokrazia astero, egunero, uneoro botoa eman ahal izatea da. Udal partehartzaila eskatzen du horrek. Eta, ejem, herritar partehartzailak ere (ikaragarri asperten naiz, harira etorri edo ez, politika eta politikariren kontra aritzen direnekin. Baina hori beste zutaberako).

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Marga

Zorionak polita! Bihar primeran ospatuko dugu elkarrekin! Ondo pasa masapasa!!



Goros

Zorionak!!! Oraindik ez zaizu susto aurpegia kendu?! Parranda ederra egin bihar!



Ane

Zorionak gaztea! Denbora azkar pasa da, baina poliki-poliki gozatu. Ondo pasa.



Aire

Zorionak printzesa! Muxu handi bat aita-txo, amatxo eta Aima-rren partetik.



Maria

Zorionak sukaldari! Zure (amiga)ren partetik.



Andoni

Zorionak zure 1.urte-betetzeari! Aitaren, amaren, aiton-amonen eta Oiharren partetik.



Uxue

Zorionak etxeko sorginari, famili osoaren partez. Ondo pasa!



Hodei

Zorionak Txipiron! Eta 3 muxu potolo. Unai, amatxo eta aita-xoren partetik.



Iraia

Zorionak sorgintxo!!! Ondo pasa zure urtebetetzeari. Muxu pottoloak zure neba eta gurasoak.



Elaia

Zorionak familiaren partetik. Ondo pasa eta muxuak.



Richard

Zorionak Imanol, Pablo eta Maiteren partetik. Muxu handi pila.

<p>Jaiotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ane Herrera Carrasco, otsailaren 19an. 	<p>Heriotzak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Antonio Ruiz Ortega, otsailaren 19an 66 urte zituela. • Miguel Angel Beorlegui Urdangarin, otsailaren 18an 44 urte zituela.
---	--

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Garaje bat salgai edo errentan jartzten dut, kultur etxeko eremu-ko etxebizitzetan. Harremanetarako zenbakia, 610 961 369.

• Pisu bat behar dut alokairuan, Lasarte-Orian edo inguruko herritan. Harremanetarako telefono zenbakia: 667 808 934.

• Pisu bat eskaintzen dut alokairuan Lasarte-Orian. 4. pisua da, igogailuarekin eta erreformatuta dago. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea ditu. Prezioa, 750 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 680 708 249, Mario.

• Usurbilen pisua alokatzen dut. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna ditu. Harremanetarako telefono zenbakia: 670 070 562

Lan-eskaintzak

• Laguntza klaseak ematen dira,

Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikian, arreta perstonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia: 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

Lan-eskariak

• Mutil bat eskaintzen da eraikitzen, biltegietan edo nekazaritzan lana egiteko. Eskarmentua du. Afzoal Muhammad, harremanetarako zenbakia: 667 80 89 34.

• Lasarteko neska gaztea eskaintzen da kurtsoan zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefono zenbakia: 677 823 141.

• Andre euskalduna eskaintzen da adineko pertsonari zaintzeko. Harremanetarako telefono zenbakia: 618 097 676.

• Neska gazte euskalduna eskaintzen da, arratsaldez umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Harremanetarako telefono zenbakia: 666 040 802.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 25

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 26

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 27

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 28

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteartea, 1

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 2

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 3

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldedia 943 376182
Kulturetxea 943 376181
Zerbitzu Sozialak ... 943 376179
KIUB 943 361605
Udal euskalgia ... 943 361621
Muntteri AEK
euskalgia 943 372863

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Urteurreneko ekitaldirik ikusgarrienetarikoa bat izan zen kultur elkarteek eskainitakoa eta amaierako, Guridiren *Eusko Irudiak*.

Urteurrenaren irakurketa positiboa egin du Udalak

Ekintzetan parte hartu dutenei eskerrak eman die alkateak

Lasarte-Oria udalerraren 25. urteurreneko ospakizunak amaitu eta Udalak, Jesus Zaballos alkatearen oharren bidez, "oso balorazio positiboa egin du".

Lehenengo astean, otsailaren 14an hasi ziren ospakizunetako ekintza desberdinak banderaren igoerarekin eta igandean bukatu ziren Loidi-Barreneko frontoiko erromeriarekin.

"Asteartearen izan zen egun nagusia, 1986ko otsailaren 15eko Udalaren eraketa gogoratu genuena. Egun hartako aktaren irakurketa eta ereserkia izan ziren ekitaldi instituzionalako ildo nagusiak," dio alkateak.

Alkateak azpimarratzen duen bezala, "egitarauak adin

guztietarako ekintzak izan ditu, haurrentzako parketik hasi eta gazteentzako konzertuetaraino, Isla plazako berbenatik pasata. Eta baita gustu guztietarako, izan ere, ekitaldi kulturalak, kiroletakoak eta historikoak izan dira, besteak beste".

Gainera, "ekitaldi gehienek parte hartze handia izan dute," adierazi du alkateak.

Herriko taldeak eta eskertza

Ospakizun hauetan udalerriko talde guztiak partaide egin nahi zituztela adierazten du, eta beraien laguntzari esker programa hau aurrera eramatea posible izan dela.

"Azken 25 urteotan, udalerraren eraketan lan egin dute talde hauek, herriaren

identitatearen eraketan, eta merezi zuten protagonismoa izan dute," dio Zaballosek.

Honetaz gain, 20. urteurreneko ekitaldiei erreparaturaz, eta egun bizi den egoera ekonomikoa kontuan hartuta, aurrekontua %60 murriztu dela ere azpimarratzen du, "2006ko 51.000 euroetatik aurtengo 21.000 euroetara".

Eta hori kontuan izanik, "esan dezakegu oso pozik gaudela lortu dugun egitarau osatuarekin," adierazten du.

Eskerrak ematen dizkie "ekintza guztien garapena posible egin duten pertsoneri, antolatutako guztietan, parte hartu dutenei eta, besterik gabe, ikusle izan direnei" eta azkenik, 25 urte hauetatik herritarrak zoriontzan ditu. •

Andaluziaren eguna ospatuko da asteburuan

Andaluzia eguna da hurrengo astelehenean, otsailaren 28an. Egun seinalatu hori ospatzeko, Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak hainbat ekintza antolatuko ditu asteburuan honetan.

Larunbatean, ospakizunei hasiera emateko, *Hijos de Jaen* Barakaldoko elkarteak taldeen emanaldia izango da Manuel Lekuona kultur etxean.

Bizkaiko elkartearen *Zambra* kora rozieroaren eta flamenko taldearen rumba, fandango eta sevillanek beteko dute kultur etxeko aretoa.

Igandean, Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizako



Semblante Rociero koruak meza girotuko du igande goizean eta emanaldia egingo du.

12:30etako mezan giro ederra egongo da, meza rozieroak izango baita.

Ostean, bazkari herrikoia egingo dute elkartearen egoitzan eta 18:30ean, *Semblante*

Rociero koruak emanaldia eskainiko du.

Azkenik, Andaluzia egunean bertan, hau da, astelehenean, 20:00etan ohorezko ardoa eskainiko da elkarteak. •

LASARTE-USURBIL BHI

Ikerbasque-ko ikertzaileak Institutuan

Ikerbasque erakundeak eta Hezkuntza Sailak ikerkuntzaren eta jardueren ikertzaileak ezagutu eta zabalazteko hainbat hitzaldi antolatutako batxilerreko ikasleentzat. Hitzaldi horietan unibertsitateko ikertzaileek beren esperientzia azaltzen diete ikasleei.

Lasarte-Usurbil Institutuan, lehenengo ostegunean, otsailaren 17an izan zen hitzaldia. Honetan, 2. Batxilergoko ikasleek Francesca Tinti historialari italiarraren esperientzia entzun zuten. Ingelera hutsean, historialariak Italia eta Ingalaterrako Unibertsitatean egindako ikerketak eta orain Gasteizko Fakultatean egiten ari den lana azaldu zien gazteei.

Institutuko zuzendaritzatik jakin arazi digutenez, "esperientzia oso interesgarria izan da ikasleentzat, zeintzuk oso era positiboan baloratu zuten". •



Arg.: Lasarte-Usurbil BHI

Gazteek adi entzun zituzten Francesca Tinti historialari eta ikertzailearen azalpenak.

EPAIKETA

Peio Eskisabelen epaiketarako autobusa

Peio Eskisabel herritarra 2005eko apirilaren 28an atxilotu zuen Frantziako polizia Caussade herrixkan, Manu Ugartemendiarekin batera. Atxilotetako momentuan polizia armak eta agiri faltsuak eramatea egotzi zion eta Le Vent epaileak ETAko nazioarteko egiturako buruzagi izatea leporatu zion Eskisabeli.

Presoaldi prebentiboan egon da ia sei urtez, Fresneseko kartzelan ia denbora gehienez, eta martxoaren 17an izango da bere epaiketa.

Horregatik, Peioren lagunek Parisera bidaia egingo dute epaiketan egoteko. aipatu digutenez, egun berean izango da joan-etorria autobusean.

Eskisabelen epaiketara joan nahi duten herritarrek, 671 073 878 telefono zenbakira deitu eta izena eman behar dute. •

PINTURA ETA MARRAZKI ESKOLA

Lekua dago marrazki eta pintura saioetan

Lasarte-Oria Bizilagunen Elkarteak Pintura eta marrazki eskola saioetan lekuak daudela jakin arazi dute eskolako antolatzaileek.

Marratzen ikasi nahi duen orok izena emateko aukera du. Informazioa eskuratzeko Manuel Lekuona kultur etxeko bigarren solairura hurbiltzea besterik ez da, asteazkenetan eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara edo larunbatetan goizetan. •

MUSIKA ESKOLA

Amaia Salsamendik urrezko domina lortu zuen Andoaino VI. Piano jaialdian

Andoaino Udalak eta Seiasle elkarteak antolatzen duten Andoaino VI. Piano jaialdia ospatu zen, otsailak 19 eta 20an, Andoaino Bastero Kulturgunean.

la mila piano jole gazte bildu ziren Andoainen eta Lasarte-Oriako Musika eskolak ordezkari bat izan zuen bertan, Garbiñe Arruabarrena irakaslearen Amaia Salsamendi ikaslea, hain zuen ere.

Amaia Salsamendik A mailan parte hartu zuen jaialdian, hau da, 11 urte arteko bakarlarri mailan. Lasarte-Oriako Musika eskolako ikasleak A. G. Abrilen *Volando la cometa* obra eskaini zuen eta urrezko domina eskuratu zuen.

Jaialdian amaieran eman zioten bere saria, hala ere, parte hartzaile guztiek izan zuten bere saria, domina eta diploma bana jaso baitzituzten. •



Baietz gure enpresan Bikain Ziurtagiria lortu!

Buruntzaldeko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko, 'Baietz gurean!' egitasmoa jarri dute abian Buruntzaldea osatzen duten 6 udalerriek. Helburu nagusia da ahalik eta enpresa gehienek

jartzea bitartekoak euskararen erabilera normalizatzeko eta pauso horiek eman ditzaten diru laguntza emango zaie egitasmo honekin, Bikain Ziurtagiria erreferentzia izanda.



S. Sarasola TSST enpresako geroitea, I. Mugika Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko lehendakaria, M. Izagirre Umietako alkatea, M. Etxebarria Hernaniko Euskara Zerbitzuko teknikaria, I. Urruzola Buruntzaldeko Jarrainen Batzordeko sindikatuaketa ordezkarria eta Marifer Gorostiza Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuko teknikaria, orain dela bi aste Umietako Udaltaldean egindako aurkezpena.

Entrada, oficina, recepción... kontzeptuen ondoan, sarrera, bulego, harrera... jartzea edota telefonoa hartzean ¿Sí, digame? esate beharrean, Bai, zein da? esatea edota web guneko edukia euskaraz ere jartzea edo dokumentuak euskaraz idaztea, bilerak euskaraz egitea...

Batzuk pauso txikiak eta beste batzuk handiak, baina guztiak dira euskararen erabilera normalizatzeko pausoak eta pauso horiek ematera bultzatu nahi dituzte Buruntzaldeko 6 udalerriek bertako enpresak.

Hori horrela, *Baietz gurean!* egitasmo berria jarri dute abian, Ahize hizkuntza aholkularitzaren proposamen batean oinarrituta.

Enpresek, euskararen alde ematen dituzten pausoen arabera, diru laguntza jasoko dute egitasmo honen bidez, abiatzen diren tokitik abiatuta ere.

Buruntzaldeko herrietako hama r langileetik gorako enpresari zuzendutako egitasmoa da.

Bikain Ziurtagiria lortzeko bidea

Egitasmoa bultzatu duten Udalek jakinarazi dutenez, egitasmoarekin helburu instrumental batez baliatzea erabaki dute oraingoan: "Eusko Jaurlaritzak, hau da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) ematen duen Bikain Ziurtagiriari bat lortzeko bidean jarriko dituzten diruz lagunduko ditugu".

Baietz gurean! egitasmoan parte hartzea erabakitzen duten enpresari azterketa bat egingo die enpresa aholkulariak enpresa horren egoera linguistikoan zein den jakiteko. Horretarako, HPSK Lanhitz programaren barruan definituta duen Erreferentzia Marko Estandarra (EME) erabiliko du.

0-1000 puntuko tartean neurtuko da egoera. Enpresa aholkulariak txostena egingo du zehaztuz neurtetaren emaitza eta enpresa horrek hurbilen duen Bikain Ziurtagiriako bidean egin beharrekoak. Bide horretan, 100 puntuko salto bakoitzeko jasoko dute diru saria Udalaren eskutik. Hasiarako puntuak

Eusko Jaurlaritzaren Bikain Ziurtagiria lortzeko bidean jarriko dituzte enpresak, eta ibilbide horretan diruz lagunduko dituzte Udalek. 100 puntuko salto bakoitzeko jasoko dute diru saria

gehiago sarituko dira: 0-500 tartean 700 euro salto bakoitzeko, 501-800 artean 500 euro, eta 801-1000 artean 300 euro.

Enpresak parte hartzea erabakitzen duenean, urte beteko hitzmena sinatuko du Udalarekin, luzatzeko aukerarekin, eta hitzamen horretan jasoko da, besteak beste, Udalak enpresari emango dion dirulaguntza.

Bikain Ziurtagiriari dagokionean, hiru dira: Beltza, 200-399 puntu artean lortzen da eta 1.000 euroko saria du; Zilarrezkoa 400-699 puntu artean lortzen da eta 3.000 euroko saria du; eta Urrezkoa 700-1000 puntu artean lortzen da eta 5.000 euroko saria du.

12 enprekin harremanetan

Buruntzaldeko Udalek egitasmoa martxan jartzeko, 12 enpresa aukeratu dituzte, herri bakoitzeko bi, eta horiekin harremanetan daude. Aukeratu aurretik honako lana egin zuten: Buruntzaldean dauden 10 langileetik gorako 390 enpresari inkestak pasa zieten euskararen inguruko beharrak eta nahiak ezagutzeko.

Horietatik 170ek erantzun zuten eta 52 enpresak azaldu zuten euskararen normalizatzeko prestutasuna. Zenbait irizpide kontuan hartuta, hasterako, 12 diru jo puntuak dituzten enpresak. •

Heziketa Zikloan ere, euskararen aldeko pausoak

Lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko, *Baietz gurean!* egitasmoa da Buruntzaldeko 6 Udalek esku artean duten egitasmo nagusia. Dena dela, ez da bakarra. Heziketa Zikloari begira ere ari dira lanean. Euskaraz ikasten dutenek (D eredu) enpresetan praktikak euskaraz egin nahi izatea eta egiteko aukera izatea ziurtatu nahi dute. Hori horrela, bi zentzutan ari dira lanean: alde batetik, ikasleak motibatzeko hitzaldiak ematen ari dira Buruntzaldeko ikastetxeetan euskarak lan munduan duen garrantzia eta lekua azaltzeko. Bestetik, praktikak egingo dituzten enpresa horiekin lanean ari dira instrukzioarekin euskalduna izan dadin, ikasleak laneko harremanak euskaraz izan ditzan, dokumentuak bi hizkuntzatan egon daitezkeen...

Fernando Martinez eta Amaia Odriozola Tximela S.A. enpresako Administrazioko zuzendaria eta Euskara Planeko koordinatzailea

"Kalitatea gero eta gehiago hartzen da kontuan, eta euskararen kalitatearen barruan dago"

Astigarragako Tximela enpresa duela 25 urte sortu zen eta 6 urte dira Euskara Plana "ofizialki" martxan jartzea erabaki zutela. Ordura arte ere euskararen aldeko jarrera bazela azaldu dute Fernando Martinez eta Amaia Odriozolak baina orduan hasi ziren aurrerapauso nabarmenak ematen; 2008an Bikain Beltza Ziurtagiria lortu zuten eta orain Zilarrezkoaren bila hastekotan dira. Plana martxan jartzeak alderdi positibo asko izan dituela azpimarratu dute eta euskararen aldeko pausoak ematera animatzen dituzte gainerako enpresak: "gauza gutxiarekin eman daitezke pausoak".



Fernando Martinez Tximela enpresako Administrazioko zuzendaria eta Amaia Odriozola Euskara Planeko koordinatzailea, atzeman Bikain Beltza Ziurtagiria dutela.

ziona lan erraza da, nahiko azkar egiten dena eta eragin handia daukana. Ahozko erabilera ere asko bultzatu zen.

Dena dela, ordura arte ere asko erabiltzen zen, Administrazioan batez ere. Tailerreko beste kontu bat da. Bertan badago jendea euskaraz menperatzen ez duena eta zaila da horri konponbidea aurkitzen. Hala ere, badira bertako langile batzuk hemen antolatzen ditugun euskaraz eskolatar joaten direnak eta hori ere pauso bat da.

Langileek nola hartu zuten? Eta bezereok?

Langileen artean harrera ona izan zuen, baina erabiltzea beste kontu bat da. Gehienak alde egon arren, eguneroko lanaren pixka bat kostatu egin da. Hala ere, aurrera goaz. Zerikusi handia du sektorean erabiltzen den hizkuntza teknikoak ere, hiztegi horrek askotan erdarara jotzea bultzatzen baitu: errazagoa delako, jendeak gehiago erabiltzen duelako...

Gure kasuan, makineria

"Euskararen presentziak eragina du bezeroarengan eta hemendik aurrera gehiago eragingo du"

aldetik, oso hitz arraroak daude nahiz eta euskaldunen artean erabili, adibidez, minixcavadora denok ezagutzen dugua, baina minihondeamakina... Dena dela, orokorrean bezeroen aldetik ere iritzi positiboak jaso ditugu.

Orain Euskararen Plana martxan daukazuela, zein helburu daukazue, epe motzean eta epe luzean?

Oraingo helburuak ez dira hain kuantifikagarriak. Hasiarakoak bai: errotulazioak, kartelak... lehenengo pauso horietan aldatuta errazagoa zen ikusten. Baina helburu batzuk ezarriak daukagu, Bikain Zilarrezkoa lortzea, adibidez. 2008an Bikain Beltza atera genuen, oinarriko maila, eta Zilarrezkoa lortzeko puntu batzutarra gelditu ginen.

bileretan ahal den neurrian euskaraz hitz egitea, dokumentu berriak euskaraz idaztea, inprimaketan euskaraz kontuan hartzea, deialdiak euskaraz egitea eta abar.

Bikain Ziurtagiria lortzea zaila dela esango zenukete?

Lan asko egin behar da eta denbora behar da dena lortzeko. Ez bakarrik enpresa barruan, beste enpresen planetan ere dedikazio bat eskatzen du. Kontuan izan behar da eguneroko zereginekin lanpetuta gaudela eta kosta egingo dela astean bi ordu ateratzea.

Ez da erraza alde horretatik, denbora eskatzen duelako baina ez dugu uste beste beharreko baldintzak zorrotzegiak direnik. Guzak behar bezala eginer gero, ziurtagiria lortzea ia segurua da. Zailagoa izango da Urrezkoa ateratzea. Urrezkoa agian erakunde publikoek eta euskaraz munduan dabilatzanek lortuko dute errazago, gure mailako enpresetan oso zaila da hori.

Amaitzeko, animatuko zenituzkete beste enpresak plana martxan jartzera eta euskararen erabilera normalizatzeko halako pausoak ematera? Zergatik?

Alderdi positibo asko dituelako. Gure lan eremua Gipuzkoa izanda, irudi positiboa lortzen da euskararekin eta enpresarentzat garrantzitsua da hori.

Gure kasuan bezala, kontsumorako produktuak dituen enpresarentzat bai behintzat. Eta merkatua hemen daukatenentzat ere bai. Gainera gauza gutxiarekin eman daitezke pausoak. Batzuk esaten dute bezeroek prezioari bakarrik begiraten diotela, baina guk ez dugu uste hori horrela denik. Gure iritziz, bezeroek beste gauza batzuk ere baloratzen dituzte.

Gainera kalitatea gero eta gehiago hartzen da kontuan eta euskarazko zerbitzu kalitatearen barruan dagoela uste dugu. Eguneko euskararen presentziak eragina duela bezeroarengan eta hemendik aurrera gehiago eragingo du. Beraz, guk beste enpresak ere animatuko genituzke. •

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 26

10:30ean, Ostadar - Amara Berri (I. Kadetea, kopa) Michelinen.
 15:30ean, Ostadar - San Patricio (I. Jubenila, kopa) Michelinen.
 12:00etan, Touring - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-I I, txapelduen fasea) Fanderia, Errearterian.
 13:30ean, Antigua Luberrri - Ostadar (Infantilen partehartzea, kopa) Berio, Donostian.
 16:30ean, Amaikak Bat - Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, txapelduen fasea) Errotazar, Deban.
 17:15ean, Texas Lasartearra - Asoleus (I. Erregionala, kopa) Michelinen.
 17:30ean, Landetxa - Ostadar (I. Erregionala, igoera fasea) Ugalde-Ventas, Irunen.
 17:30ean, Lagun Onak - Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Garmendipe, Azpeitian.

Igandea 27

10:00etan, Ostadar - Internacional (Alebinak, kopa) Michelinen.
 11:15ean, Ostadar - Kostkas M.B. (Erregional Gorenak) Michelinen.
 12:30ean, Zarautz - Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Asti-Txiki, Zarautzen.
 15:45ean, Bergara - Ostadar (Infantil txikiak, kopa) Ipintza, Bergaran.
 16:30ean, Hondarribia - Ostadar (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Ondartza, Hondarribian.

■ ARETO-FUTBOLA ■

Ostirala 25

HERRIKO TXAPELKETA
 19:45ean, Ainhoa - Kalaberri Z
 20:40ean, Lekuona Mena - Epel

Larunbata 26

17:00etan, Anoetako Gazte Asanblada - ISU Leihokak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Abraham Olano Kirolegia, Anoetan.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Morrison's - Buenetxea
 11:00etan, Ilargi - Ori kristaldegia
 13:00etan, Illun - ISU Leihokak
 15:00etan, Izkiñ - Viña del Mar
 16:00etan, Indaux - Izarra

Igandea 27

10:00etan, Aldaz H.K. - M. Petronor (Nazional B maila) Kirolegian.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Katakas - Ayete
 11:00etan, S.Andaluz - Naiban
 11:50ean, Buenetxea - Indaux

■ PILOTA ■

Larunbata 26

16:00etan, Intza - Azkoitia I (Errendimendu txapelketa, eskuz binaka, alebinak 2. urtea) Michelingo frontoian
 16:00etan, Intza - Gazteleku 4 (Errendimendu txapelketa, eskuz binaka, infantilak) Michelingo frontoian.
 16:00etan, Intza - Añorga 2 (Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. seniorra) Michelingo frontoian.

■ ATLETISMOA ■

Larunbata 26

10:30ean, Landaberri eta Sasoeta ikastetxeetako alebin eta infantil mailako gaztetxoek eskolarteko lehiaketako azken jardunaldia dute, Donostiako belodromoan.
 11:00etan, herriko hainbat korrikalarik V. Sagar Lasterra proban parte hartuko dute, Hernanin.
 15:00etan, LOKEko Ane Galardi kadeteak Espainiako txapelketan parte hartuko du, Oviedon.
 17:00etan, herriko hainbat korrikalarik Zumaia XXVII. Herri lasterketan parte hartuko dute, Zumaian.

Igandea 27

09:30ean, LOKEko Ane Galardi kadeteak Espainiako txapelketan parte hartuko du, Oviedon.
 11:00etan, herriko hainbat korrikalarik Saharar herriaren aldeko krosetan parte hartuko dute, Ormaiztegin.

■ IGERIKETA ■

Larunbata 26

16:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko txikiak Kirok Zehaztasun txapelketako 3. jardunaldia dute, Hernanin.
 17:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko Iñigo Ibarburu, Itsaso Tolosa, Jone Vazquez eta Garazi Alkorta Euskadiko eta Espainiako gutxineko markak lortzeko "Denbora Hartze" proban izango dira, Leioan,

■ JUDO ETA BORROKA ■

Larunbata 26

Egun osoa, LOKE judoek Espainiako senior eta junior mailako sambo eta borroka txapelketan parte hartuko dute, Gijonen.
 Egun osoa, LOKE judoek junior mailako Euskadiko txapelketa dute, Gasteizen.

Igandea 27

9:00etatik 13:00etara, LOKE judoek Espainiako senior eta junior mailako sambo eta borroka txapelketan parte hartuko dute, Gijonen.
 10:00etan, LOKE judoka gazteek infantil mailako Gipuzkoako txapelketa dute, Lezon.
 11:30ean, LOKE judoka gazteek alebin mailako taldeko Gipuzkoako txapelketa dute, Lezon.

■ GIMNASTIKA ■

Igandea 27

10:00etan, alebin mailako Landaberri ikastolako taldeak eta LOKEko infantil mailako taldeak Udaberriko txapelketa lehenengo fasea dute, Oiarzunen.

■ ERRUGIA ■

Igandea 27

10:00etan, Ostadar Beltzak Jalai eskolako benjamin eta alebinek topaketa dute, Unbe, Eibarren,
 10:00etan, Ostadar Beltzak Jalai eskolako infantilek topaketa dute, Asti, Zarautzen.



Neguko txapelketan parte hartu zuten Buruntzaldea Igeriketa taldeko kideetako batzuk. Arg.: Buruntzaldea Igeriketa taldea

Uzta ona Neguko txapelketan

Buruntzaldea igeriketa taldeko gazteek sei domina eskuratu eta hogeita marka pertsonal hobetu zituzten Tolosan

Gipuzkoako Infantil, Junior eta Absolutuen Neguko Txapelketa jokatu zen, otsailaren 12 eta 13an Tolosan.

Lehiaketan Buruntzaldea Igeriketa taldeko kideak izan ziren.

Igerilari bakoitzak hainbat probatan parte hartu arren, emaitza paregabeak lortu zituzten, sei domina jantziak eta hainbat marka pertsonal hobetuz.

Dominak

Txapelketako lehen domina Itsaso Tolosaren eskutik iritsi zen. 2'36"32 denborarekin 200 bizkar proban zilarra eskuratu zuen, bere marka pertsonala 6 segundotan hobetuz.

Itsaso berak eta Iñigo Ibarburuk, 100 tximeleta proban, brontzezko domina bana eskuratu zuten, lehenak 1'18"43 markarekin eta bigarrenak 1'09"54 denborarekin.

Mikel Arribillagak lortu zuen laugarren domina 400 estiloak proban, zilarrezkoa.

Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu digunez, "Mikelek Euskadiko gutxineko marka lortzeko aukera zuen proba honetan baina ez zen posible izan. Hala ere lan txukuna egin zuen, 5'43"06 denbora eginez".

Honetaz gain, Iñigo Ibarburuk 200 tximeleta proban brontzezko domina eskuratu zuen, 2'40"35 marka ederrarekin.

Azken domina, berriro ere, Itsaso Tolosak eskuratu zuen. 1'15"66 denborarekin brontzezko domina berri bat eskuratu zuen, 100 metro bizkar proban izan zen hori.

Euskadiko gutxienekoa

Aipatu bezala, Mikel Arribillaga Euskadiko gutxienekoaren bila joan zen Tolosara.

400 metro estilo proban lortu ez bazuen ere, proba horretako estilo librean Mikelek 4'56"05 egin eta Euskadiko txapelketarako txartela lortu zuen.

Markak

Dominez gain, Buruntzaldeko gaztetxoek 20 marka pertsonal eta 3 errelebotako taldeko marka hobetzea lortu zuten txapelketa honetan.

Iñigo Ibarburuk txapelketa ona egin zuen. 100 metro libreetan bere marka onena bi segundotan hobetu zuen.

Bestalde, infantilen 4x200 metro libre proban parte hartu zuen Mikel Arribillaga, Unai Bueno eta Kevin Iglesiasekin. Seigarren postua eskuratu eta taldearen marka 15 segundotan jaitzi zuten.

"Errelebo honetan aipagarriena, Iñigok egindako lehenengo postua izan zen. Bere marka pertsonala lau segundotan hobetu zuen eta," adierazi du Apeztegiak.

Era berean, Unai Buenok 100 bizkar proban hobetu zuen bere marka; Asier Lopez de Arregik 100 libre, 100 estilo eta 50 libre probetan; Oier Mitxelenak 50 tximeleta proban eta Haitz Mitxelenak, 200 tximeleta eta 400 libre probetan.

Neskei dagokionez, entrenatzaileak aipatu duenez, Naroa Goikoetxeak bere hobekuntzarekin jarraitu eta 200 eta 100 bular probetan bere marka hobetu zuen.

Postu onak

Dominak, markak eta igerilariak, gainera, postu onak ere egin zituzten.

Mikel Esnal nagusien mailako 100 libre proban parte hartu eta azkarrena izan zen. Bosgarreneko postua lortu zuen, aldiz, 50 libre proban.

Era berean, Unai Buenok bosgarren postua egin zuen 100 estiloak proban.

Haitz Mitxelenak, aldiz, 100 tximeleta proban seigarren postua lortu zuen.

Naroa Goikoetxeak 50 bular proban ere lan bikaina egin zuen laugarren postua eskuratu zuen.

Gainera, 4x100 libre proban, bai infantilek, baita helduek ere postu ona lortu zuten. Infantilek laugarrena eta helduek hirugarrena.

Erreleboetan ere, 4x50 libreetan, Asier, Haitz, Oier eta Mikelek osatutako taldeak hirugarren postua eskuratu zuten.

Eta infantilen 4x100 estiloak proban, Mikel, Kevin, Iñigo eta Unai seigarren postua eskuratu zuten. "Amaiera arte gogor igeri egin zuten," aipatu du Borjak. •

Infantil mailako gazteek eskuratu zituzten dominak txapelketan: Itsaso Tolosa igerilariak hiru; Iñigo Ibarburuk bi eta Mikel Arribillagak bakarra

Egunero

Erakusketa

MAITENA URREBIZKAIAREN argazkiak ikusgai. Aukeratu gehien gustatzen zaizun argazkia, eta parte hartu zozketan. Jalgin, egun osoan.

Erakusketa

Lasarte-Oriaren XXV. Urteurrena dela eta "ORIA" izeneko erakusketa hilaren amaiera arte. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 25

Kontzertua

OSCAR PORTUGUESEK flamenkoa eta fusioa lantzen ditu. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan, doan.

Igandea, 27

Zinea

MEGAMIN haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,30 euro. Kulturetxean, 17:00etan.

Osteguna, 3

Zinea

PAN NEGRO (PA NEGRE) filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,20 euro. Kulturetxean, 21:30ean.



Aurka, herriko taldearen kontzertua Jalgin gaur

AURKA 2007ko urte bukaeran sortu zen 3 taldekideekin, punk-rock-hardcore musika egiteko asmoz. 2008an laugarren kideak gehitu zitzaizkien mikrofonora, taldeko neska bakarra, Arritxu. 2008an CDa grabatu zuten, 11 abestiekin eta orain demo bat ari dira grabatzen eta urte honen hasieran kaleratuko dute seguruenik.

GAUR, OSTIRALA 25
JALGI KAFE-ANTZOKIAN
23:00ETAN, EUSKARAZ

Andaluziaren eguna

Larunbata, 26

Kontzertua

19:30ean HIJOS DE JAEN taldea Manuel Lekuona kulturetxean. Sarrera, 3 euro.

Igandea, 27

Meza

12:30ean MEZA ROZIEROA "Semblante Rociero" koruaren eskutik. Arantzazuko Amaren elizan.

Bazkaria

14:30ean BAZKARI HERRIKOIA egingo dute. Semblante Andaluz Elkartearen.

Kontzertua

18:30ean SEMBLANTE ROCIERO abesbatzaren emanaldia. Semblante Andaluz Elkartearen.

Astelehena, 28

Ekitaldia

20:00etan OHOREZKO ARDOA eskainiko da Andaluziako egunean. Semblante Andaluz Elkartearen.

Eskutitza

Zergatik aldaketa hau? Ez gaude ados

Atzo otsailak 24 osteguna, sustapen pribatuko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa berri bat egin zen (urrian Goiegi ibarreko etxebizitzaren egin zen).

Oraingo honetan, aldaketa nabarmen bat dago: eraikitzaileek, zozketa Udalaren bidez egitea aukeratu dute Etxebidaren bidez egin ordez, legeak ematen dien aukera baliatuz.

2010eko udaberrian, sustapen publikoko etxebizitzaren zozketarako ordenantza bat onartu zuen udalak. Atzo egin zen zozketa ordenantza horretan kokatzen ez denez, Udalak eta eraikuntza enpresak hitzarmen bat sinatu dute, non zozketaren baldintzak zehazten diren.

Ez gaude batere ados hitzarmen honekin, ze, bertan parte hartu dezaketen pertsonen zerrenda 2010eko uztailearen 6an itxi zen zerrenda delako, beste inor sartzeko aukerarik eman gabe.

Orduan, zure ustez azken sei hilabete hauetan herritarren bizimoduak aldatetarik ez du izan? Zenbat ezkontza, jaiotza, heriotza, lana aurkitu duen jende xehea...

Eta ze gertatzen da lehen parte hartzerik izan ez zuten eta orain aukera izango lukeen herritar horrekin? Beste herritarrak baina eskubide gutxiago ahal dituzte?

Ez ahal da, modu desegokian, arbitrarioan eta guztiz bidegabean kendutako eskubide bat?

Zergatik aldaketa hau Zaballos jauna? Jakin badakigu zenbait teknikarien artean ere desadostasunak sortu direla, sposata dezaiegun erabaki-jarrera itxi eta kapritxoso hau, zure erabakia dela? Non gertatzen da herritarrekiko zure zaballosa, ideia berriak jaso nahia, eta hainbat hitz polit? Uzta jasotzeko aurrean erein egin behar da Zaballos jauna.

Gure ustez etxebizitza eskubide bat da, eta ezin da onartu gaur egungo egoeran etxebizitza bat eskuratzeko aukerarik gabe uztea herritar multzo bat. Lerro hauek, Ezker Abertzaleko zinegotziok, izen-emate epe berri bat ireki dadila nahi dugu, Uztailearen 7tik aurrera baldintzak betetzen dituzten herritar guztiak zozketarako izena emateko aukera izan dezaten.

Txanpi Baztarrika,
Joxe Goikoetxea, Ixiar Iartza
Ezker Abertzaleko zinegotziak

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara



Oharrak

Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan otsailaren 28an 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago eta!

Etixeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, otsailaren 25ean Lasarte-Oriako Etixerate kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaltzaren aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Sorgin Dantza

Ttaku Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako 25. urteurreneko ospakizunen barruan Sorgin Dantza antolatu zuen. Bertan parte hartu zuten guztiei jakin arazten die, Udalak ospakizunetan parte hartu dutenei eman dizkien oroigarriak, boligrafoa eta giltzatak, Ttakuneko egoitzan daudela, Geltoki kaleko 4.ean. Nahi duzuenen pasa zaitzekete bila, goizez

09:00etatik 13:30era eta arratsalde 15:30etik 19:30era.

Bide batez Ttakunek eskerrak eman nahi die Sorgin Dantzan parte hartu zuten guztiei eta zintzurra bustitzeko edariak eskaini zituzten tabernei.

Galdutako erlojuak

Swatch markako erloju beltz bat galdu zait Lasarte-Oriako kiroldegiaren inguruan. Jaso duenari bueltatzea eskertuko nioke, opari bat zen eta. Mikel, 647 995 050 (mikelgarnieto@terra.es). Eskerrik asko.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota: zilarrezko kolgante bat, urrezko aliantza bat Jose Luis grabazioarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neskaren eskumuturreko bat, bi zilarrezko pultsera, haur zamarra bat eta larruzko beste bat.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsonak Udaltzainen Bule-

gora hurbil daitezela (09:00-13:00).

Igeriketa ikastaroa helduentzako

Martxoaren 2tik apirilaren 15era, helduentzako igeriketako erdi eta hasiera mailako ikastaroa eskainiko du udal kiroldegiak. Astean 3 saio izango dira, astelehenean, asteazkenean eta ostiralean, goizeko 07:10ean edo iluntzeko 20:30ean. Izena emateko azken eguna gaur da. Ikastarok 105,70 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkideentzat 58,70. Informazio gehiagorako jo, kiroldegiko bulegora edo 943 376 182 telefonora deitu.

Buruntz Azpi elkarteko ehiza txapelketa

Martxoaren 12an, larunbatean, Buruntz Azpi ehiza txapelketa antolatuko du Buruntz mendian. Txapelketaren ostean, indarrak berreskuratzeko bazkaria egongo da.

Txapelketan parte hartzeko, elkartearen izena eman behar dute interesatuek martxoaren

9a, asteazkena baino lehen.

Escola kiroleko topaketak

Benjamin mailako atletismo-ko topaketa martxoaren 5ean aurre ikusita bazegoen ere, 12an izango da. Honen inguruko informazioa helaraziko zaie parte hartzaileei.

Bestalde, bihar otsailaren 26an bi topaketa izango dira Lasarte-Oriako. Goizez igeriketa kiroldegian izango da, 10:30etik aurrera eta arratsaldean tenisa Michelinekin 16:00etatik aurrera.

Frontoia itxita

Michelin enpresa burutzen ari den eraikinen eraispeneren ondorioz eta segurtasun neurri bezala, Michelingo frontoi irekia publikoari itxita egongo da astelehenetik aurrera eta lau astez ez da erabilgarri egongo.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

San Ferminak badatoz Lasarte-Oriara

Martxoaren 5ean herrian ospatuko diren San Ferminen txupinazoa izango da eguerdian

O hituak gaudena baino beranduago badatozte ere, inauteriak iristeke daude. Lasarte-Oria berriro ere inauteri festa gogoz bizitzeko azken prestaketetan murgilduta dago. Zure bizitza ohikotik atera eta gehiegikeriak egiteko aukera paregabea. Zarena egun batez alboratzeko eta nahi duzun horretan bihurtzeko.

San Ferminak pertsona mota eta adin guztientzako festa dugu eta hori da aurten herriko hainbat taldeek prestatu diguten jai.

Bizi jaia mozorrotuta

Oraindik ez dakizula zertaz mozorrotu? Berriro luzatzen dizkizugu hainbat aukera. San Ferminak irudimen handia dutenentzako eta patxadazaleentzako gaia dugu.

Ez duzula gehiegi konplikatu nahi, txuriz jantzi, zapi gorria eta gerrikoa hartu eta atera kalera.

Baina mozorroa gehiago landu nahi baduzu aukera anitz dituzu.

Zezenik gabeko entzierrorik egitea ezinezkoa da, beraz korrikalariak baldin badaude zezenak behar dira. Eta gogoratu korrikalarien artean entzierro osoa arazorik gabe amaitzea lortu dutenak eta istripuren bat izan dutenak aurkitu ditzakegula.

San Ferminetan turistak ezin dira falta, ezta ere txupinazo momentuan plazan dauden pertsona horiek guztiak ere.

Jai guztietan bezala kaleak alaitzeko txarangak, txistulariak, udaleko musika banda, peñak... ezin diote hitzorduari uko egin.

Txozna jarri nahi duzula, inauterietan ere aukera duzu, baita zure edari gogokoenez

mozorrotzekoa ere.

Barrakerorik gabe, ez dago jai. Barrakak, tonbola eta bertako langilerik gabe ez dago San Ferminik.

Arrosa saltzailea, CD eta DVD saltzaileak, jota-ableslariak, bertsolariak, Kukuxumuxuko zezena, erraldoiak eta buruhandiak, gaiteroak, herri kirolak, musika taldeak, su artifizialak, zezen-suzkoa, Hemingway, karikatragileak, garbitzaileak, udaltzaingoa... mila aukera San Ferminen giroa herrira ekartzeko.

San Ferminak egun batez

Iruñan aste bete irauten duen jai Lasarte-Orian egun batera murriztuko da.

Goiz hasi eta luzera joko du egunak, beti ere, bakoitzaren iraupenaren arabera.

Goizeko 11:30ean Sagardotegi kalean biltzeko hitzordua jarri da eta 12:00etan Ttakuneko balkoitik txupina botako da. Sagardotegi kalea Iruñako udaletxe plazan bihurtuko da. Jaiei hasiera eman eta gero, bertan bildutakoak buruhandi eta erraldoien laguntzarekin kalejirari ekin-gio diote.

Pintxopoteoa

Energia gastua ekiditeko kalejiran zehar pintxopoteo egin-gio da tabernaz tabernaz.

Jalgin hasi, Buenetxea, Iñaki, Insausti, Avenida, Ilargi, Dakara eta Sagardotegi kalera buelta. Taberna hauek San Ferminetan girotuak egongo dira eta gainera, eskaintza berezia izango dute eguerdi osoan, pintxoia gehi edaria euro bat eta erdira.

Bazkari herrikoia

Eguna luzea izango da, beraz, deskantsatzeko parada ere egingo da, izan ere bazkari



San Ferminetako pertsonaia desberdinak eta festa giroa Lasarte-Orian bilduko dira inauterietan.

Arg.: www.xanarts.com

herrikoia antolatuta da, 14:30ean.

Bakoitzak bere etxetik eraman beharko du otordua, eta Arrieskalleta elkarteak prestatutako salda, txorizoa eta odolki egosi pintxoekin osatu ahalko da.

Bazkaldu ostean, emanaldi berezia prestatu da, honetan, Jotak, zezenketa, batukada, malabarak, San Ferminen bila eta herri kirolak izango dira.

Desfile erraldoia

Arratsaldean, herriko elkarte eta talde desberdinek antolatzen duten desfilearekin bat egingo da. Azken bi urteetan herrian sortu den festa erraldoi politaren emaitza ikusita, elkarteek berriro guztiok elkarrekin inauterien jaietan barneratzeko bat egin dute.

Desfilea 16:30ean hasiko da Isla Plazan. Ondoren, Zumaburu kaletik, Kale Nagusira egingo da Arantzazuko amaren eliza ondok eta geldialdia izango da Zaharren egoitzan. Kale Nagusia jarraitu eta erdialdean beste geldialdi bat egingo da. 18:00etarako Andatza plazara iritsiko da desfilea eta 18:20ean berriro aurrera egingo du Kale Nagusira. Hau itxia egongo da eta bertan bukatuko da festa.

Gogoratu elkarteek gain, desfile hau herritar guztientzat dituela ateak zabalik. Ondo pasa nahi baduzu, parte hartu desfilean. Mozorrotu eta disfrutatu jai giroaz.

Eguna ondo amaitzeko

Desfilea amaitu ostean orain-

dik gozamenerako eta ondo pasatzeko astia egongo da.

Arratsaldeko 19:30etik 21:00ak bitartean Erromeria antolatuta da Sagardotegi kalean.

Herria atondu

Gure buruak antontzeaz gain, mozorrotu dezagun herria ere. Herria jai erraldoian bihurtzeko deia luzatu nahi dute elkarteetatik eta horretarako, balkoiak eta leihoak dekoratzeko eskaera egiten dute.

Ez da gehiegi behar, koloredun zapi edo oihal zati batzuk zintzilikatzea puxika batzuekin, serpentinekin, zintaren bat... bakoitzak eskura duenarekin atondu dezala. Modu erraz eta merke batean herria mozorrotu dezagun. •



OTEGI

SAGARDOTEGIA
SOLLAEENA BASERRIA

• Larunbata eta jai eguerditan irekita

• Asteartetik larunbatera gauero irekita

Zabaleta auzoa ■ LASARTE-ORIA ■ Tel.: 943 365029

Txotx garaia hasita!